

AUZO BIRA

AUZO BIRA

2023-2027 legegintzaldiko gobernu planaren azalpena



HERNANI AUZO BIRA, 2026

- Bizilagunekin bilera erronda -

MEDEBALDEA. BATZARRAREN AKTA

DEIALDIA	EGUNA	2026-01-12
	ORDUA	18:30-20:00
	TOKIA	Meabe-Langile Ikastola

PARTE-HARTZAILEAK:

Emakumeak	Gizonak	Guztira
11	20	31

- Udal ordezkariak: Xabier Lertxundi, alkatea; Ainara Atorrasagasti, Hirigintza eta ingurumen zinegotzia; Aitor Lukas, Gazteria eta Partaidetza zinegotzia. Elena Calvar, partaidetza teknikaria.
- Dinamizazioan: Farapi Kooperatibatik, Gabriela Renteria eta Leire Kortajarena.

HIZKUNTZA:

Lau lagunek euskaraz ulertzeko zailtasunak adierazi dituztenez saioa elebitan izan da, aurkezpen nagusia euskaraz izan bada ere.

0. AUZOZ AUZOKO SAIOEN KOKAPENA ETA AURKEZPENA

Lehenik eta behin alkateak hitza hartu du eta parte hartzaileei ongi etorria eman die. Zinegotziak eta Farapiko kideak aurkeztu eta landuko duguna azaldu du.

Farapi kooperatibak, ongi etorria eman die bertaratutako bizilagunei. Ondoren, saioaren nondik norakoak eta helburuak azaldu ditu. Halaber, hizkuntzaren erabileraren inguruko azalpenak eman ditu. Esan bezala, aurkezpenak elebitan izan dira eta hitzartzeak bakoitzak erabakitako hizkuntzan.

Amaitzeko, jardueran zehar parte hartzea nola kudeatuko den eta ordutegia zein izango den zehaztu du. Hala, Hernaniko Udal ordezkariari eman zaie hitza.

1. AURKEZPENAK

Aurkezpenari hasiera emateko, Udalak 2023-2027 Gobernu Planaren eguneraketa azaldu du.

- Guztiz beteta %51,9 (70 ekintza)
- Betetzera bidean %36,3 (49 ekintza)
- Betetzen hasi gabe %11,8 (16 ekintza)

Jarraian, herri mailan egingo diren neurri nagusiak aurkeztu dituzte:

- Kultur ekipamendu berria, lehiaketa bidez aukeratua izango dena (udara aurretik aukeratua)
- Gune tentsionatuaren izendapena, hilabete honen amaieran jasotzea espero dena. Udaletik, horrekin batera, planifikatu den 3 urteko ekintza-plana eta etxebizitza behatokiaren sorrera, etxebizitzaren alokairuaren inguruko bitartekaritza.
- Plaka fotovoltaikoak jartzeko Enhnerkomekin egindako hitzarmena, Hernanin sortzen den energia kudeatu eta kontsumoa bultzatzeko.
- Mantentze lanetarako 2. plana (asfaltatzea). Zona honetan:
 - o Marielutsetik Urbietarako malda
 - o Latsunbe 4 pareko bidegorri eta aparkalekua
 - o Sorgintxulotik Meaberako bidea
- Auzozaintza programa, adinekoei bideratutakoa.

Ondoren, bereziki Mendebaldeko zonaldeari dagozkion eskuhartzeak azaldu dira:

- Galarreta-Errekalde bidegorriaren egoeran aurrerapausuak
- Jauregiko animalien seinalizazioa
- Arratzen areagotzea eteteko beharrezko esku-hartzeak
- Ekoland proiektua, lur kutsatuen tratamendurako planta

Eta azkenik, auzotarrek egindako proposamenen bilakaeraren berri eman dute:

- Jauregi: trafikoa, betelana, oinezkoen esparrua
- Sorgintxulo: parkearen estalpea, aparkatzeko zailtasunak eta trafikoa, igogailua Sorgintxulotik Oronara
- Marieluts: bankuen egoera-berrantolaketa, argiteria, barandaua, airearen kalitatea, tragikoa, haurrentzako espazioak, baratza komunitarioak, proiektu komunitarioak

2. BIZILAGUNEN EKARPENAK

Udal ordezkarien aurkezpenaren ondoren, bizilagunei ekarpenak, zalantzak eta iradokizunak egiteko tarteak eskaini zaie.

HERRI LANAK	
Galarretan zaborrontziak	<p><i>Galarretako bizilagun batek adierazi du merkatal zentroetako bezeroek, sarri, zikinkeria lurrean uzten dutela. Honi aurre egiteko zaborrontziak eskatu izan ditu, baina Udaletik ez du erantzunik jaso. Eskatera 20225-7-10ean egina (2025-00000007669).</i></p> <p>Udaletik eskaera berriro ere egiteko eskatu zaio, eskaera bideratu ahal izateko.</p>
Betetze lanak Marielutsen	<p><i>Marielutseko betetze lanak zerekin eta nola egiten ari direnaren gaineko salaketa jaso da. Besteak beste, haurrak eskolarako bide naturala bertatik pasatzen da. Gainera, zikinkeria arazoak pairatzen dabilta betelanak hasi zirenetik, egunerokoak deserosotasun handiak sortuz. Badirudi, adierazpena egin duen auzotarrak, behin baino gehiagotan adierazi diola hau Udalarari eta ez zaiola apenas soluziorik jarri.</i></p> <p>Udaletik argitu nahi izan da Aldundiaren eskumena dela arazo honi soluzioa ematea. Hala ere, hau jakinda, udal langileak espazioa garbitzen aritu direla, argi badago ere ez dela nahikoa izan. Kexa asko jaso dira gaiari lotuta, eta hauei soluzioa emateko presioa egin nahian aritu diren arren, argi dago emaitzak ez direla nahikoak izan.</p> <p>Aldi berean, herritarrak egindako eskaerek erantzunik ez jasotzearen arrazoiak aztertuko dituztela adierazi da.</p>
Latsunbeko adinarteko parkea	<p><i>Berritzen eta adinartekotasuna bultzatzeko egokitzen ari diren parkearen inguruko kezka jaso da: erabiltzaileentzat segurtasun arazoak izan daitezkeenak, nolakoa izango den ulertzeko zailtasunak...</i></p> <p>Udaletik azaldu da auzo elkartearekin jada 4 bilera egin direla, proiektua aurkeztu eta hobekuntza proposamenak jasotzeko. Auzotarrak animatu dituzte elkartera hurbildu eta proiektua ezagutzera. Proiektua horrelakoetan aditua den enpresa batek egin du, denbora luzez daramate honetan lanean. Beraz, ulertzen dute segurtasuna bermatua egongo dela.</p>

INGURUMENA	
Moztutako edo eroritako zuhaitzak berlandatzea	<p><i>Herritar batek adierazi du, alde batetik, Sorgintxulo inguruko urkiak moztu dituela, zikinkeria eta soinua hareagotuz. Aldi berean, duela 25 urte zuhaitz egunean landatu eta jada eroritako zuhaitzak berlandatzeko eskaera egin du.</i></p> <p>Zuhaitzen mozketari dagokionez, Aldundiak hartutako erabakia izan da, harena baita eskumena. Bestalde, eroritako zuhaitzak berlandatzeko eskaera jaso egin du Udalak.</p>
Ekoland proiektua	<p><i>Ekoland proiektuaren bueltan, jada kontaminazio karga altua den herri batean, horrelako proiektu batek izan dezakeen eragin negatiboaren inguruko kezka jaso da. Horrekin batera, herritar baten aldetik, herritar guztiekin ez landu izanaren inguruko keza bat jaso da; eta bestetik, jarraipen batzordean bizilagun elkartearen ordezkartzean parte hartzen hari den beste baten aldetik, jarraipen batzorde hori lanerako espazio askea ez denaren gaineko kezka jaso da.</i></p> <p>Udaletik azaldu da proiektu honek ez duela sortzen aipatutako beste proiektuen adina kontaminazio sortzen, eta zehazki, erraustegia bezalako ekimenak ekiditeko helburuz jarriko dela martxan. Horrez gainera, duela urtebetetik hona gertuen bizi direnekin lanean ari direla, eragin gehien pairatzen dutenak direla ulertuta. Hala eta guztiz ere, proiektua martxoko udalbatzan onartua izatea espero dela, hortik aurrera alegazioak eta kexak erregistratzeko tarte egongo dela.</p>
UDALTZAINGOA	
Galarretako zebrabidea	<p><i>Galarreta eta Orona arteko zebrabidearen kokapenak istripuak sortu dituela adierazi du auzotar batek. Bere ustetan, Aldundia eta Udalaren artean bidegorria egiteko koordinazioan izandako akats batekin zerikusia du. Kokalekua aldatzeko proposamena egin du; errotondatik zertxobait atzeratzea, alegia. Semaforo bat jartzeko aukera ere aipatu du.</i></p> <p>Udaletik argitu da bidegorria dela eta ez dela proiektuan aldaketarik eman, ez duela horrekin loturarik. Egoerari aurre egiteko Udalak ez du eskumenik. Hala eta guztiz ere, lehentasunezko arazoa denez, auzoan egitekoa den birrurbanizazioan segurtasuna hobetzeko neurriak landuko dituztela adierazi da.</p>
Galarreta auzoko aparkalekuak	<p><i>Auzoaren ondoan dauden merkatal zentroetako langileei enpresak ez die baimenik ematen autoa beren aparkalekua erabiltzeko. Ondorioz, Galarretako plazak erabiltzen dituzte, auzoaren beharrak oztopatuz, eta sarritan, irisgarritasun arazoak sortuz. Ez dute errespetatzen "paso de servidumbre" delakoa. Bertakoek soilik aparkatzeko seinalizazioa eskatu du auzotar batek.</i></p> <p>Aipatu da, alde batetik, merkatal zentroekin hitz egingo dela arazoa azaldu eta irtenbidea bilatzeko. Bestalde, auzoan soilik bertakoek aparkatu dezaten seinalizazioa jartzeko aukeraren inguruan hitz egiteko prest azaldu da Udala, nahiz eta beste auzo batzuetako esperientziak erakutsi duen neurri horrek, aldi berean, auzokoentzat ere zailtasunak sortzen dituela.</p>

TOKIKO GARAPENA	
Orona proiektuaren berri	<p><i>Orona proiektuaren berri jasotzeko bilera eskatu diote Galarreta auzokoek.</i></p> <p>Udaletik biltzeko prestutasuna azaldu da. Aldi berean, Oronak Estubegiko lur-saila erosi duela azaldu da. Hasiera batean industria guneko bat izateko zena, azkenean Oronaren zabalkundea izango da.</p>
ALKATETZA	
Galarreta auzoa	<p><i>Auzotar batek bere gaizkiegona adierazi du, beste ekarpen batzuk aipatu ostean, Udala auzoarekin ez dela gogoratzen sentitzen dutelako.</i></p> <p>Udaletik auzotarrekin biltzeko prestutasuna adierazi da.</p>
Jauregi bailara	<p><i>Jauregi bailarako bizilagun batek azaldu du auzoaren beharrak ez daudela asetuta: zaindu gabe dagoen zaborrontzi bakarra dago, erreka bazterrak garbitu gabe daude, argiteria hobetu beharra, asfaltatzea berritu, haurrentzako gunerik ez dago... Auzo elkartea sortzeko bidean daude.</i></p> <p>Udaletik, bereziki asfaltatzeari lotutako beharrei erantzunez, adierazi da lehentasuna maila teknikoaren arabera izan ohi dela. Honen baitan, aldi berean, hiriguneko eta landa eremuko bereizten direla. Aurrera begira, elkartea sortzen denean, interlokuzioa erraztu eta hobetuko delakoan daude.</p>
Ekarpen eta kexak	<p><i>Udalera bideratzen diren kexen gaineko kezka jaso da. Alde batetik, auzo elkarteen bitartez egiten direnez gainera, maila indibidualean egiten direnei ere kasu egitearen beharra, sentsazioa bai da ez dela horrela.</i></p> <p><i>Eta bestetik, egiten diren eskaerei erantzuteko prozeduraren inguruko kezka azaldu da: ez dira beti erantzuten edo jarraipena ematen... Badago aukera erantzuna emateko konpromisoak hartzekoa?</i></p> <p>Udaletik azaldu da eskaerak taldean egiteak auzoaren beharrak islatzen laguntzen duela, ez bakarrik norbanakoenak. Horregatik, bi mailatan egiteko aukera badago ere, taldean egitearen garrantzia azpimarratu nahi izan da.</p> <p>Eskaerei erantzuteko konpromisoaren harira, adierazi da Udalera iristen diren eskaera kopurua oso handia dela. Hauetatik, batzuei erantzuna ematen bazaie ere, ez dagoela gaitasunik denak artatzeko. Gaia lantzen ari dira, baina gaurko egunez, ezinezkoa da erantzuteko konpromisoa eta epeak zehaztea.</p>

3. ITXIERA

Ekarpenen tartearen ondoren, Farapik hitz egindakoa borobildu du eta honako gako nagusiak nabarmendu ditu:

- Orokorrean, **auzoen errealitatearen anitza** izanik, eskaerak hauei lotutakoak izan dira. Bereziki, herri lanei, aparkalekuei edo segurtasunari lotutakoak.
- Zenbait auzok Udaletik **atentzio gehiagoren jasotzearen beharra** adierazi dute. Udaletik azpimarratu da interlokuzio hau auzo elkartean bitartez egitearen garrantzia, bizilagunengana gerturatzeko konpromisoa hartzearekin batera.
- Udalera bideratzen diren **kexen jarraipenak** eta erantzuteko epeen inguruko kezka jaso da. Udalera iristen den eskaera kopuruak zaildu egiten du lehenestea eta erantzun bat ematea. Hala eta guztiz ere, kezka sortu dute zenbait egoerek eta hauek kudeatzeko bideak bilatuko dira.
- Partaidetza eta deboluzio espazioen **balorazio positiboa** egin da, eta egindako lana aitortu da ere.
- Egin diren ekarpenak **aktan jasota** geratuko direla gogorarazi zaie bertaratutakoei.

Amaitzeko, alkateak Udalaren komunikazio-kanalak gogorarazi ditu, urtean zehar erabili ahal izateko: aurrez aurre, telefonoz eta Internet bitartez. Eskerrak eman dizkie partaideei etortzeagatik eta saioa euskaraz egiteko aukera emateagatik.

4. FITXETAN JASOTAKO EKARPENAK

Saioaren amaieran, bizilagun batzuek idatziz adierazi dituzte bestelako proposamen eta kezkak, banatu zaien fitxa batean.

1) Zeintzuk dira zure kezka edo behar nagusiak momentu honetan?

- Galarretan, Oronarako zebrabidea eta segurtasuna
- Galarretan aparkaleku arazoa merkatal zentroen ondorioz
- Usoak: bizilagunei jaten ez emateko eskaera egitea
- Bankuen berrantolaketa, "koadrilan" jartzeko aukera
- Marielutsen azoka eguneko trafikoa eta ikastolako sartu-irteeretan sortu ditzaketen arrisku egoerak

2) Ba al dakizu auzorako proposamenik edo behar berriren bat nabaritzen duzu?

- Galarretan, zaborrontziak B11 paradan
- Galarreta eta Orona arteko zebrabidean semaforoa edo koxka jartzea, abiadura moteltzeko

3) Udalak martxan dituen neurrien artean, zeintzuk jarriko zenituzke balioan?

- Galarretan, merkatal zentroetara joateko semaforoa, auzoko hobekuntza bakarra
- Denak

4) Nola baloratzen duzu Auzo Bira?

- Oso zuzena, egokia eta eraginkorra (bilera eskaera entzunda)